



**Arartekoaren 2016R-24-16 Ebazpena, 2016ko azaroaren 15ekoa. Horren bidez, Laudioko Udalari gomendatzen zaio berriz azter dezala informazioa eskuratzeko eskaera bat ukatzeko erabakia.**

### Aurrekariak

- Herritar batek jakinarazi dio Arartekoari Laudioko Udalak ukatu egin diola bere eskuetan dauden dokumentu batzuk –XXXko X egikaritze-unitatearen hirigintza-kudeaketari dagozkionak– eskuratzeko eskaera.

Kexagileak azaldu duenez, 2015eko irailaren 4an, hirigintzako informazioa eskuratzeko eskaera egin zuen. Hain zuzen, jarraian zerrendatutako agiriak eskuratzeko interesa azaldu zuen:

A. ZZZ banaketa-areako "Z" egikaritze-unitatearen birpartzelazio-proiektuaren aldaketarekin bat, kuota zatiezina (YYY lursailaren % 30,46) zergapetzen duen hirigintza-atxikipena zehazteari buruzko dokumentua.

B. Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko maiatzaren 20an hartutako erabakiaren bidez onartu zen Urbanizazio Proiektuaren 7. eranskinean dagoen agiria.

C. "Egikaritze Unitatearen birpartzelazio eta urbanizazioaren likidazio-kontuko diru-sarrera eta ordainketen kronologia eta egoera" txostenean aipatutako zorren konpentsazioak jasotzen dituen agiria "1".

D. Bidalitako eta ordaindu gabeko ordainagiriaren diru-bilketa betearazlearen egoera egiaztatzen duen agiria.

E. Udalak urbanizazioa eta eraikuntza batera egitea baimendu zuen hirigintza-eremuei dagokienez, urbanizazio-lanen gauzatze-egoera egiaztatzen duen agiria, eta lanen aldiberekotasuna eta eraikuntza-lanak hasteko orduan urbanizazio-lanen egoera arrazoitu zuten udal txostenen kopia.

F. Udal arkitektoaren txostenean aipatutako eraikuntza lizentziak eskatzeko egunean AAA merkataritza-sozietateak zuen egoera ekonomiko-finantzarioa eta kaudimena egiaztatzeko agiria, baita aipatutako lursailetan sustatutako etxebizitzaren salerosketako eskrituren kopia ere.

G. Idazki horretan ere, ZZZ banaketa-areako "Z" egikaritze-unitatea osatzen duten lursailen jabeek zordundutako zenbatekoak biltzeko zerbitzuaz arduratzen den udal langileari buruzko informazioa eskatu zen.

- Kexan alegatzen duenez, Laudioko Udalak jakinarazpen bat bidali zion, 2015eko urriaren 13an. Horren kopia B agirian erantsi da. Gainerako kontuei dagokienez, udalak hainbat arrazoi emanda ukatu egin du bidaltzea, agiri publikoak eskuratzeko

eskubidearen zati ez direla uste izan duelako. Hain zuzen ere, arrazoiak honelakoak izan dira: administrazio-espedituetan ez egotea (F agiria); dokumentua egiteko beharra (A agiria); eskaera orokorra izatea (E agiria); zerga-ondorioak dituzten datu erreserbatuak izatea (C eta F agiriak); hirugarren batzuen datu pertsonalak edukitzea (C, D eta F agiriak).

Dena den, G agiriari dagokionez, esan da diru-bilketa agentzia baten bidez egiten ari dela, baina ez da eman arduradunaren daturik.

- 2015eko azaroaren 9ko ebazpenaren aurka berraztertze-errekurtso bat aurkeztu zuen kexagileak. Idazki horretan, berriro ere, dokumentazioa eskuratzeko interesa agertu du eta zehaztu ditu lortu nahi dituen agiriak.

A agiriari dagokionez, kexagilearen ustez, erabil dezake eskubidea YY lursailari dagokion kuota zatiezina zergapetzen duten hirigintza-atxikipenei buruzko informazioa eskuratzeko, edo hala badagokio, horien inguruan hirigintzako kontsulta egiteko.

C eta D agiriak direla eta, uste du informazioa eskuratzeko eskubidea garrantzitsuagoa izan beharko duela, zorren konpentsazioak eta ordaintzeke dauden zenbatekoen bilketaren egoera baino, batez ere, pertsona juridikoen kasuan.

E eta F agiriei dagokienez, azaldu du Laudioko Udalari dagokiola eskatutako informazioa zehaztea, datu horiek aipatutako beste txosten batzuetan jasota baitaude. AAA enpresak jarraitutako hirigintza arloko espedituek ikustearen kasua da, 16 etxebizitza eraikitze lizentziak eskatu zirenean.

Era berean, kexagileak berriz azpimarratu du araudian jasota dagoen eskubidea, prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzeko.

- Alegazioak gorabehera, 2015eko abenduaren 11n, Laudioko Udalak ezetsi egin du osorik berraztertze-errekurtsoa, ez baititu egokitzen jo aurkeztutako arrazoi eta oinarriak.

Kexagileak Arartekora jo du, bere ustez, udalaren erantzuna, hainbat agiri eskuratzeko eskubidea ukatzen diona, ez dator bat gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotako eskubidearekin (informazioa eskuratzeko), bertan deskribatutako modua eta salbuespenak kontuan hartuz gero.

- Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu dio Laudioko Udalari. Hain zuzen, galdetu dio zer egin duen udalak informazioa eskuratzeko eskaerari erantzuteko, eta, bereziki, nolako jakinarazpenak bidali dizkien interesdunei.

Laudioko Udalak 2016ko martxoaren 17ko txostena helarazi zion Arartekoari, zeinaren bidez, hirigintza-espedituetan jasotako aurrekariak aztertu ondoren, honako hau azaldu baitzuen:

*"1.- Nolanahi ere, erakunde honek kexagileari jakinarazitako agiriak dagoeneko badituela eta ezagutzen dituela kontuan hartuta, eskaera guztien eta eskuan dauzkagun informazio eta agirien arabera emandako erantzun guztien kopiak bidaltzen ditugu, hain zuzen ere, honako hauek:*

*A) 2015-09-07an erregistratutako idazkia (sarrera-zenbakia: 10286) eta 2009-03-10eko eskrituraren kopia, BBB notarioaren 1044 protokolo-zenbakia duena.*

*B) Alkatearen jakinarazpena, 2015-10-13koa (irteera-zenbakia: 6603) eta horri erantsitako 1. agiria (CCC erabakiz behin betiko onartu zen Urbanizazio Proiektuaren 7. eranskina).*

*C) 2015-11-09an erregistratu zen berraztertze-errekurtsoa (sarrera-zenbakia 13050).*

*D) 2736 zenbakia duen Alkatetza Dekretuaren jakinarazpena, dagozkion txostenekin (2015-11-24koa eta 2015-12-10ekoa), 2015-12-11n igorritakoak (irteera-zenbakia: 7908). Jakinarazpena 2015-12-17an jaso zen.*

*E) 2015-12-18an erregistratutako idazkia (sarrera-zenbakia: 14915), aurkeztutako errekurtsuari buruzko esanbidezko ebazpena eskatzeko.*

*2.- Dokumentu horiek guztiak aztertuta, ikus daiteke bai hasierako erantzunak (B agiria), Alkatearen 2015-10-13ko idazkiaren bidez (irteera-zenbakia: 6603) emandakoak, bai 2015-12-27an jakinarazitako 2736 zenbakia duen Dekretuaren bidez emandako esanbidezko ebazpenak (D agiria), dokumentatuak, jasotzen dituztela bai banakako erantzunak, ondo arrazoituak, baita eskaera guztiei zein aurkeztutako errekurtsuan jasotako alegazioei erantzun zehatzak ere.*

*DDD kexagileak azaldutako uzien ikuspuntutik desegokitzat edo kontrakotzat jo ditzake erantzun edo arrazoi horiek, baina horrek ez du esan nahi baliogabeak direnik, galda daitekeen motibazioak ez baitu eskatzen arrazoibide sakonik eta xehaturik, eskatzaileak –askotariko dokumentuak eskuratzeko eskaera orokor batean– azaldutako alderdi eta ikuspegi guztiei dagokienez. Dokumentu horiek, azaldu zen bezala, ez zeuden eskuragarri, egin behar zirelako, zehaztugabeak zirelako edo hirugarren batzuen datuak –legearen bidez murriztuak, jakinarazteari dagokionez– ukitzen zituztelako.*

*Hau da, kexagileak eta bere aholkulariek, eskuragarri zegoen hirigintzako informazioa behin baino gehiagotan eskuratzear gain, eskaera eta kontsulta bakoitzari erantzun bat jaso dituzte. Erantzun guztietan behar bezala arrazoitu zen eskaera onartu edo gaitzesteko erabakia, dokumentuak eskuratzeko eskubidea ukatu zenean edota egindako eskaerekin loturiko jarduerak desegokitzat jo zirenean.*



*Hori guztia erakunde honi jakinarazten diot, jasota gera daitezen eskuragarri dauden informazioak eta DDDren ordezkariak egindako eskaerei bidalitako erantzunak, eskaera onartu edo gaitzesteko erabakiaren arrazoiekin batera."*

Informazio hori eta kexaren egileak alegatutako gainerako inguruabarrak ikusita, eta horren edukiak aztertu ondoren, gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut:

### Gogoetak

1- Hirigintza-agiri publikoak eskuratzeko eskubidea. Oro har, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 eta 37. artikuluetan ezarritakoaren arabera erregulatzen dira espedienteen eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskariak. (Gaur egun Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. Artikuluak arautua.)

Hain zuzen, 35. artikulua onartzen du herritarren eskubidea *"Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea"* izateko. Bestalde, indarrean dagoen 37. artikulua ezartzen duenez, *"herritarrek eskubidea dute informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izateko, Konstituzioan eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko legean eta aplikatzekoak diren gainerako legeetan ezarritako baldintzen arabera"*.

Espaniako Konstituzioaren 105.b) artikuluan aurreikusitako baldintzetan, egungo 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, informazio publikoa eskuratzeko prozedura arautzen du. Zehaztu beharra dugu lege hori ez zela berehala indarrean jarri, pixkanaka-pixkanaka baizik, eta toki-administrazioek 2015eko abenduaren 11 baino lehen egokitu beharko zuten lege horretara.

19/2013 Legeak administrazioaren eskuetan dauden eduki edo agiriak eta beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu direnak jotzen ditu informazio publikotzat.

Eskubidea baliatzeak Legearen 14.2 artikulua espresuki jasotzen dituen mugak ekar ditzake. Muga horiek aplikatuz gero, *"justificada y proporcionada a su objeto y finalidad de protección y atenderá a las circunstancias del caso concreto, especialmente a la concurrencia de un interés público o privado superior que justifique el acceso"*.

Era berean, 19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren bigarren idatz-zatiak ezartzen du informazioa eskuratzeko araubide juridiko espezifikoak duten gaiak araudi espezifiko baten pean izango direla eta lege horretan ezarritako araudia osagarri izango dutela. Adibidez, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak, bere 34. artikuluan zergapekoen eskubidea ezartzen du zerga-administrazioak lortutako datuak isilpekoak izateko; datu horiek

administrazioaren eskumeneko zergak aplikatzeko edo baliabideak kudeatzeko baino ezingo dira erabili. Era berean, 95. artikularekin bat, zerga-arloko datuak isilpekoak dira eta ezin izango zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi.

2- Pertsona fisikoen datu pertsonalak eskuratu eta babesteko eskubidearen mugak. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren aurreikuspenekin bat, datuak eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, pertsona fisikoen askatasun publikoak kaltetzea eta oinarrizko eskubideak urratzea eragin dezakeen informazioa lortu nahi denean.

Eskatutako informazioak pertsona fisikoen bereziki babestutako datuekin – ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio, sinesmen, arraza, etnia edo sexu-bizitzaren berri ematen duten izaera pertsonaleko datuekin– zerikusia duenean, ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin, edo bestela, lege maila duen arauaren babesarekin bakarrik baimenduko da datuok eskuratzea.

Bestalde, eskatutako informazioan modu berezian babestuta ez dauden datu pertsonalak baldin badaude, administrazioak, irispidea emateko, “modu aski arrazoituan haztatu” behar ditu informazioa zabaltzeak duen interes publikoa eta ukitutako pertsonen eskubideak. Kasu horretan, kontuan izan behar da ukituen eskubideak ahalik eta gutxien kaltetzea, agiriak identifikatzeko besterik balio ez duten datuak dituztenean.

Erakundearen antolamendu, funtzionamendu edo jardun publikoarekin zerikusirik duten identifikazio-datuei dagokienez, oro har, onartu egingo da informazioa eskuratzeko eskaera.

3 - Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko prozedura. Eskaera gaitzesteko arrazoiei dagokienez, 19/2013 Legearen 18. artikulua honako hau ezartzen du: *“información para cuya divulgación sea necesaria una acción previa de reelaboración”*. Hau da, eskatzaileak lehendik dauden datuetan oinarritutako informazioa kontsultatu nahi duenean, eta, datu horiek dokumentu zehatz batean ez daudenez, alde aurretik biltzea beharrezkoa denean. Eskaera gaitzesteko beste arrazoi bat eskaerak *“manifiestamente repetitivas o tengan un carácter abusivo”* izan daiteke.

Azpimarratu behar den beste kontu bat eskaerak uziaren xedea ez aipatzea da. 19/2013 Legearen 19. artikulua ezartzen du jarraitu behar den izapidea, eskabidean informazioa behar bezala identifikatzen ez denean. Kasu horietan, eskaera-egileari eskatuko zaio zehaztu dezala hamar eguneko epean, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskabidean atzera egiten duela ulertuko dela.

Eskatutako informazioak hirugarren batzuen eskubideei eragin badiezaieke, 19.3 artikulua bete behar den izapide bat xedatzen du: *“Si la información solicitada pudiera afectar a derechos o intereses de terceros, debidamente identificados, se les concederá un plazo de quince días para que puedan realizar las alegaciones que*

*estimen oportunas. El solicitante deberá ser informado de esta circunstancia, así como de la suspensión del plazo para dictar resolución hasta que se hayan recibido las alegaciones o haya transcurrido el plazo para su presentación”.*

Zera azpimarratu beharra dago: araudian aurreikusitako muga bat informazioaren zati bati aplikatzen zaionean, baimen partziala emango da eta ukitutako informazioa ezabatu egingo da.

Kasu guztietan, irispidea ukatzeko ebazpena arrazoitu behar da, eta gauza bera, baimena partziala denean, edo irispidea baimentzen denean, hirugarren bat aurka egon arren.

4- Datuak eskuratzeko eskubidea baliatzeko urratsak. Eskubidea behar bezala erabiltzeko jarraibide batzuk ezartzeko asmoz, bidezkoa da honako hau aipatzea: Arartekoaren abenduaren 30eko 6/2010 Gomendio Orokorra (Gardentasuna eta agiri publikoak eskuratzeko eskubidea. Bereziki, ingurumen informazioa eskuratzea). Ebazpen horrek jasotzen ditu kasu bakoitzean aplika daitezkeen hainbat printzipio eta gomendio.

\* Eskabide orokorra delako edo informazioa zehaztu gabe dagoelako ukatu denean egin beharreko urratsak. Informazioa eskuratzeko, helburu jakin bat adierazi behar da. Informazio orokorra zehazteko, administrazioak eska dezake eskabidea zuzentzeko, edo bere esku daukan eta kexagileak adierazitako interesari erantzuten dion dokumentazioa bidal dezake.

Orokorra izateak gai baten inguruan dagoen informazio guztiari egiten dio erreferentzia (esate baterako, udalerrri bateko urbanizazioa eta eraikuntza aldi berean egin diren eremuei buruzko informazioa). Administrazioak informazioa emateko argudia dezakeena da informazio horren bolumena, publikoa baita, baizik eta ez dela zehaztu jarduera konkreturik eta erreferentzia zehatza ematea falta dela.

Alde horretatik, administrazioarekiko auzien Bilboko 4. zenbakiko Epaitegiak martxoaren 3an emandako 74/2006 Epaia aipatu behar dugu –JUR 2006/210115–. Lurzoru urbanizaezin batean azken bost urteetan emandako hirigintza lizentziei buruzko informazio eskabide batez ari delarik, Epaitegiak uste du ez dela abusuzko eskabidea; izan ere, epealdi jakin bat zehaztu da, eta lizentziak hain ugari ez diren lurzoru mota bati buruzkoa da eskabidea.

Dena den, gogoratu behar da administrazioak saiatu behar duela kexagileari laguntzen, bere eskubideak erabil ditzan, kasu horretan, eskabidea formalizatzeari dagokionez. 30/1992 Legearen 35. artikulua –indarrean dagoen 39/2015 Legearen 13. artikulua– ezartzen duenez, erraztasunak eman behar zaizkie beren eskubideez baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko. Horretarako, administrazioak bere eskuetan dagon informazioaren berri, edo bestela, urbanizazioa eta eraikuntza

aldi berean egiteko kasuei buruzko administrazio-espedienteen erreferentzia eman dezake.

Auzitegi Gorenaren 2006ko apirilaren 4ko epaian ezarri da eskabide iraunkorrak eta aldizka lantzen diren datuen gainekoak ingurumen-informazioa aldizka zabaltzeko ezarritako baldintza berberetan izapidetu eta erantzun behar direla.

\* Datuak sortu edo *ex novo* egin behar denean jarraitu beharreko urratsak. Administrazioari ezin zaio exijitu bere eskumenekoak ez diren azterlanak edo banakatzeak egitea. Kasu honetan, mugak kontuan hartu behar du dokumentuak publikoki hedatzeko beharra edo hirigintza bezalako arloetan eskabideak edo kontsultak egiteko eskubidea.

Auzitegi Gorenaren ekainaren 2ko 4525/2000 epaiak xedatzen duenez, bereizi behar dira udal erregistro eta artxiboetan sartzea eta landu gabe dauden datuei buruzko ziurtagiria eskatzea. Epai horretatik ondorioztatu behar da administrazioa ez dagoela behartuta, herritarren eskabideak jasotzen dituenean, dagokion lanketa egitera, arau batek lanketa hori artxiboetan dauden datuekin egiteko beharra ezartzen ez badu behintzat.

Hori horrela izanik ere, administrazioaren funtzionamendua gidatzen duten printzipioei esker (hala nola antiformalismo, fede on edo konfiantza legitimoa), administrazioak idazki horiek berariazko prozedurara bideratzea lortzen du, eta, berariazko prozedurarik ez dagoenean, hori eskatzeko eskubideaz baliatzen da.

Konstituzioaren 29. artikuluan ezarri den eta Eskariak egiteko eskubidea arautzeko azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoaren bidez arautu den eskubideak aukera ematen du administrazio publikoei eskariak bidaltzeko, iradokizunak eskatuz edo eginez, edota informazio edo ekintza bat eskatuz, zuhurtziaren edo aukeran ematearen arabera erabakiei buruz.

Horiek horrela, eskariak egiteko eskubideari esker, herritar orok modu diskrezionalen edo arautu gabean eska dezake datu horiek lantzea edo bere intereseko agiriak egitea.

Testuinguru horretan, administrazioak administratuen nahia bideratzen ahalegindu behar du ordenamendu juridikoak ezarritako prozedura zehatzetan.

5- Hirigintza-agiriak eskuratzeko eskubidea. Administrazioen eskuetan dagoen hirigintzako informazioa lortzeko eskubidea honako hauetan jasota dago: Lurzoruari eta Hiri Zaharbertzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. artikuluko c) idatz-zatian; eta Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 9. artikuluan.

Eskubidea betearazteari dagokionez, dokumentuak jasotzeko aukera osagarriak diren bi mekanismoren bidez gauza daiteke: udal plangintza edo beste

administrazio-egintza batzuk materialki eta zuzenean aztertuz, edo bestela, hautatutako komunikabidearen bidez informazioa bidaliz. Era berean, informazioa eskuratzeko eskubideak berekin dakar plan horiek osatzen dituzten dokumentuen kopia, baita planak izapidetzeko ireki diren hirigintza arloko espedienteekin loturiko dokumentuen kopia ere jasotzeko aukera.

Bestalde, hirigintzako araudiak ere -7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. artikuluko s) idatz-zatiak- jasotzen du lursail jakin baten kasuan aplikagarriak diren hirigintzako arau eta baldintzei buruzko informazio osoa, idatziz eta arrazoizko epean izateko eskubidea. Ildo horretan, lursail baten hirigintza-egoerari buruzko informazioa eskuratzeko eskaera batek administrazio-prozedura horretan jasotako arauen arabera, eta ez lehendik dagoen dokumentazioa eskuratzeko eskabide gisa, izapidetu beharko luke.

6.- Administrazio-langileak identifikatzeko eskubidea. Azkenik, kexan aipatutako eskabideetako bat ordaindu gabe dauden urbanizazioaren gastuak biltzeaz arduratzen den pertsonaren identifikazio-datuei buruzkoa da.

Eskaera 30/1992 Legearen 35. artikuluan b) idatz-zatiak aitortzen duen eskubidearen zati da (egun, 39/2015 Legearen 53 1. b) artikulua arautzen du) *b) Prozedurak izapidetzeko ardura duten administrazio publikoetako agintari eta langileak identifikatzea.*

Eskubide horrek barnean hartzen du ebazpena ematen duen edo likidazioa egiten duen funtzionario edo langilearen, edo jarduketetan interesdunarekin harremanetan jartzen den edozein pertsonaren identifikazio osoa. Eskubide hori garrantzitsua da, administrazioaren funtzionamendu txarra dela eta diziplinazko edo ondarezko erantzukizunaren aldetik, prozeduran parte ez hartzearekin eta errefusatzearekin zerikusia baitu.

7. Hirigintza-jarduketekin loturiko dokumentu batzuk eskuratzeko eskaeraren ukapenari buruzko irizpena.

Dokumentu publikoak eskuratzeko eskubidearen hedapen orokorra zehaztuta, aztertu behar da XXX (zentroa) dagoen X egikaritze-unitatean aurreikusitako hirigintza-jarduketarekin eta udalerrian egiten diren beste jarduketa batzuekin lotutako agiriak eskuratzeko eskaerei udalak eman dizkien erantzunen inguruko kexaren edukia.

Kexa horretan, aurrekarietan zehaztu bezala, hainbat agiriren kasuetan (A, C, D, E, F eta G), ukatu egin da hirigintzako kudeaketara iristeko aukera, edo informazioaren zati bat bakarrik eman da, aurrekarietan azaldutako arrazoiengatik.

- A agiriak, udalak emandako arrazoiaren arabera, birpartzelazio-espedienteetan jasota ez dagoen informazioa aipatzen du. Edonola ere, udalak ez du zehazten bere eskuetan ez dagoen informazioa den edo beste administrazio-jarduketa batzuen zati



den. Horietako bat izan daiteke, adibidez, kexagileak aipatutako 1093/1997 Errege Dekretuaren 19.1.a) artikuluan xedatutakoa betetzea: urbanizatzeko betebeharrari lotuta dauden emaitza-finkak erregistroan inskribatzeko beharra.

Kontuan hartu behar da informazioa eskuratzeko eskubidea lehendik administrazioaren eskuetan dauden agiriei dagokiela bakarrik. Hori dela eta, administrazioak aztertu behar du eskatutako agiria birpartzelazio-espeditarean edo emaitza-finka bat erregistroan jasotzeko jarduketa baten zati den ala ez.

Horrela bada, administrazioak uka dezake eskaera, agiria udal erregistroetan ez badago, eta ez du datuak berregiteko beharrik.

Edonola ere, lehenago jaso diren jarraibideekin bat, udalak lagundu behar die herritarrei beren eskubideak gero eta hobeto balia ditzaten. Horrek esan nahi du A agirian azaldutako eskaera birpartzelazio-prozesu baten ondorioz lortutako finka baten hirigintza-egoerari buruzko kontsultatzat jo daitekeela. Horiek horrela, udal administrazioak YYYY lursailari dagozkion urbanizazio-kargen ondorioetarako banaketa-ehunekoak ezagutzeko asmoz egiten den hirigintza-konsulta gisa izapidetu, eta, beraz, hirigintzako araudian jasotako arauen arabera bideratu beharko luke A agirian jasotako eskabidea.

- C eta D agiriak zorren konpentsazioarekin eta nahitaezko diru-bilketaren egoerarekin lotutako dokumentuak aipatzen dituzte; zor horiek, hain zuzen, egikaritze-unitatearen birpartzelazio eta urbanizazioari loturiko likidazio-kontuarekin dute zerikusia. Kasu horretan, udalak dio ez dela posible dokumentu guztiak eskuratzea, isilpeko agiriak direlako eta datu pertsonalak jasotzen dituztelako.

Halakoetan, kontuan izan behar da Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 95. artikulua, informazioak zerga-arloko datuak dituenen. Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordearen 94/2016 Ebazpenak, eskatutako informazioak zerga-arloko datuak dituzenez, bidezkoztat jo du eskuratzeko eskaera ukatzea.

Urbanizazio-kuotei dagokienez, doktrinak zerga-izaera juridikoa esleitu die, eta ondorioz, besteak beste, isilpeko agiri bihurtu dira. Hori dela eta, ezin dira eskuratu, zerga-araudian jasotako salbuespen kasuetan izan ezik ("Acerca de la naturaleza tributaria de las cuotas de urbanización derivadas de la ejecución del planeamiento urbanístico"; J. Gallego López; Zergen Kronika, 127/2008 zk.).

Dena den, ordaindu ezean jabeei premiamendu-prozeduraren bidez eskatzeko modukoak diren zorren zerga-izaerak ez du eragozten hirigintza-kudeaketaren ondoriozko jarduketei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea izatea (birpartzelazio-proiektuaren, behin-behineko likidazioaren eta behin betiko likidazioaren kasuetan). Hirigintza-arloko agirietan jaso behar dira birpartzelazio-saldoak, baita idazpen guztien doikuntza eta konpentsazioak ere.

Informazio hori, zerga-araudiak isilpekotzat jotzen dituen datuak salbu, interesdun guztien eta, zalantzarik gabe, birpartzelazioak eragindako jabeen eskura jarriko da.

- E agiriaren bidez, urbanizazioa eta eraikuntza aldi berean egiteko baimena lortu duten hirigintza-eremuen exekuzio-egoera egiaztatzea eskatu da. Eskuera hori orokortzat eta zehaztugabetzat jo da, eta informazioa eskuratzeko eskubideaz abusatzea izan daiteke.

Kontuan hartu behar da informazioa eskuratzeko eskaera guztietan zehatz aipatu behar dela eskaeraren xedea den urtea (edo urteak). Horiek horrela, aipagarria da kasu honetan aztertzen ari garen eskabideak, hirigintzaren arlokoak, denboraldi mugatu bat jaso behar duela, eskatutako dokumentuak eskuratzeko izapidea errazteko.

Dena den, abusuzkotzat jotzeari dagokionez, Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordearen CI/3/2016 interpretazio-irizpidea aipatu behar da. Ebazpen horrek ondorioztatzen duenez, abusuzko eskabide bat ukatzeko, kualitatiboki neurritz kanpokoak izateaz gain, gardentasunari buruzko araudiak ezarritako xedearen kontrakoa izan behar du (xedea arduradun politikoen jarduna, erabaki publikoak hartzeko modua edo erakunde publikoen jarduna aztertzea dela kontuan hartzen bada).

Irizpide horrek balio du, besteak beste, ulertzeko, urte-tarte zehatz batzuk aipatu beharra gorabehera, eskatutako informazioa –urbanizazioa eta eraikuntza aldi berean egiteko Laudioko Udalaren baimena lortu duten urbanizazioei buruz–gardentasunari buruzko legediaren xedearen ikuspuntutik garrantzitsua eta ez abusuzkoa dela, horren bidez, jakin nahi baita zeintzuk diren udalaren irizpideak eta eskakizunak zentzu horretan.

- F agiria merkataritza-enpresa baten kaudimen ekonomikoari buruzkoa da. Beste sustapen batzuekin lotutako agirien kasuan, gogorarazi behar da administrazioa ez dagoela behartuta lehendik dauden dokumentuak berregitera, enpresa baten kaudimen ekonomikoa zehaztu ahal izateko. Hala ere, espedienteetan jasota dauden agiriei dagokienez, posible da emandako eraikuntza-lizentziekin lotutako dokumentu guztiak eskuratzeko, kasu honetan, lehenago aipatutako zergen kudeaketarekin loturiko informazioa ez bada.

Espedienteetan jasota egon daitezkeen datu pertsonalei dagokienez, kontuan izan behar da 19/2013 Legean aurreikusitako mugak (lehendik dauden agiriak eskuratzeko) zorrotz errespetatu eta aurreikusitakoaren arabera arazoitu behar direla. Kasu honetan, 19.3 artikuluko xedapenekin bat, eskatutako informazioak datu pertsonalak jasotzen baditu, horiek modu berezian babestuta ez egotea. Halakoetan, administrazioak, irispidea emateko, “modu aski arazoituan haztatu” behar ditu informazioa zabaltzeak duen interes publikoa eta ukitutako pertsonen eskubideak.



Kasu horretan, kontuan izan behar da ukituen eskubideak ahalik eta gutxien kaltetzea, agiriek identifikatzeko besterik balio ez duten datuak dituztenean.

- G agiriari dagokionez, erakundearen antolamendu, funtzionamendu edo jardun publikoarekin zerikusirik duten identifikazio-datuei dagokienez, oro har, onartu behar da informazioa eskuratzeko eskaera.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau eman nahi du Arartekoak:

### GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen dio Laudioko Udalari berriz azter ditzala informazioa eskuratzeko eskaerak ukatzeko erabakia. Hain zuzen ere:

- Laudioko Udalak, A agiria eskatzen duen eskabidea YYYY lursailaren hirigintza-egoeraren kontsultatzat jo ondoren, erantzun behar dio, eta dagozkion urbanizazio-kargen ondorioetarako banaketa-ehunekoak jakinarazi.

- C eta D agiriei dagokienez, Laudioko Udalak bere eskuetan dauden datuen zerrenda eman behar du, hirigintza-kudeaketari loturiko jardueri dagokienez (birpartzelazio-proiektua, behin-behineko likidazioa eta behin betiko likidazioa), eta zerrenda horretan jasoko ditu birpartzelazio-saldoak, baita idazpen guztien doikuntza eta konpentsazioak ere, zerga-araudiak isilpekotzat jotzen dituen datuak salbu.

- E agiriari dagokionez, eskatzaileak denboraldi bat zehaztu ondoren, udalak bere eskuetan dagoen informazioa emango dio, udalerrian urbanizazioa eta eraikuntza aldi batera egiteko baimena jaso duten urbanizazio-jarduketei buruz.

- F agiria dela eta, eskatzaileak alegazioetan egindako zehaztapena ikusita, Laudioko Udalak helaraziko dizkio bere eskuetan dauden agiriak, aipatutako enpresa-sustatzaileari emandako eraikuntza-lizentziei buruz. Informazioak datu pertsonalak baditu eta, hortaz, eskuratzeko eskubidea mugatu behar bada, udalak zorrotz jarraituko dio 19/2013 Legearen 19.3 artikuluan aurreikusitako prozedurari. Izan ere, prozedura horren arabera, administrazioak, ukitutako pertsona fisikoei alegazioak aurkezteko izapidea hasteaz gain, modu aski arrazoituan haztatu behar ditu informazioa zabaltzeak duen interes publikoa eta ukitutako pertsonen eskubideak. Halaber, gainerako dokumentuak eskuratzeko aukera emango du, arrazoizkoa izanez gero, kendu behar diren datu pertsonalak ezabatu ondoren.



- G agiriaren kasuan, Laudioko Udalak jakinarazi beharko dio kexagileari eskatutako informazioa, hain zuzen, udalean diru-bilketaren zerbitzuaz arduratzen den pertsonaren identifikazio-datuak emango dizkio.